

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luis Urizar Murelaga Zirillo

*Lekeitio,
Bizkaia
(1933-2023)*

Aurkibidea



Biografia



Dendari kalean jaio eta bizi zen, ezkontzerakoan Bergara kalera joan arte. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen, itsas mundukoak: aita arrantzalea eta ama kanabako langilea eta moilako janari-denda bateko dendaria. Hamahiru urterekin eskola utzi eta letoigintzan (latonerian) hasi zen lanean 14rekin itsasora joan aurretik: txibitan, bisigutan, antxoatan zein atunetan aritutakoa. Afrikako hainbat herrialdetan ibilitakoa da, eta beste lekeitiar asko bezala lau aldiz Dakarrera joandakoa. Erretiratu aurreko urteak sukaldari-maiordomo legez ibili zen merkataritza-ontzian.

Zintak

LEK-030

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-11-26
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Etxebarria, Mikel

LEK-031

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-11-26
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Amaren denda eta "txalopetxia"

- **Erref:** LEK-030/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:15. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Bere amak Garavilla lantegian egiten zuen lan, baina denda bat zuen moilan. Lehenago bere aititak taberna zuen bertan, "txalopetxia", txalupa bakoitzak zuen taberna. Bertan bizi ziren eta komunik ere ez zuten, eta egur-ikatzeko sukaldea zuten. Hala ere, bazuten ura. Berea amak Gernikatik estraperloan dendarako hainbat produktu ekartzen zituen: irina, olio, azukrea...</p>

2. Errazionamendua; "latoneria"

- **Erref:** LEK-030/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamendu garaian oraindik ez zuten denda zabalik. Beraiek Dendari kaleko "Gala" dendan hartzen zuten. Amari askotan laguntzen zion dendan. 13 urterekin "latoneria"n hasi zen beharrean, gerora joan zen itsasora</p>

3. Gose garaiak

- **Erref:** LEK-030/004
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Dendako bezeroekin hartu-eman ona zuen bere amak. Ez zuten trukerik egiten. Bere aita eta aitita arrantzaleak zirenez zenbat gura arrain izaten zuten, eta gainerakoak dendan izaten zituzten. Okela erosteko dirua behar izaten zen. Jende askok pasatu zuen gosea. Estraperloan produktu asko egoten ziren eta dirua behar zen horretarako.

4. Garai gogorak

- **Erref:** LEK-030/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Francoren diktadura garaia oso gogorak izan zen: eskolan Cara al Sol abestu beharra, zikinkeria asko, hazteria "sarna" ugari...</p>

5. Garbitasuna; ur eskasia

- **Erref:** LEK-030/006
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:13:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Garbitasunak "terreña" egiten zituzten, harrian. Beraiek ura zuten etxean, baina askok ez. Lekeitiora Pascual Abaroak ekarri zuen 1888. urtean hainbat iturri eta depositu jarriz.

6. Argindarra

- **Erref:** LEK-030/007
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean bonbilla bat edo bi baino ez zituzten izaten. Trumoiekin askotan joaten zen argia. Zineman sarritan gelditzen ziren argi barik pelikula ikusi ezinik. Karburoa itsasoan erabiltzen zuten.

7. Tabakoa, arto-bizarrak, pipa...

- **Erref:** LEK-030/009
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:16:17. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Gaztetan, ezkutuan erretzen zuen. Hebra izeneko tabakoa erretzen zuten. Arto-bizarrak eta kakahueteen azala ere erretzen zen; eztarria erretzen zuten. Andrazkoek ez zuten erretzen, baina lehen andrek pipatik erretzen zutela dio.

8. Txikiteoa; ardoa

- **Erref:** LEK-030/010
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:22:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Kuadrillak oso handiak izaten ziren eta txikiteorako joera handia zegoen. Txikiteorako 100 taberna inguru egon ziren Lekeition. Ardoa, anisa eta koñak baina ez zen egoten edateko. Goizetan ardo zuria eta arratsaldean beltza edaten zen. Zahagian egoten zen ardoa, alondigan egoten zen ardoa. Bisigutan joaten zirenean kuartiluko ardoa izaten zuten egunero. Txikitoa nahiko merkea izaten zen.

9. Dantzaldiak; neska gazteen eguna

- **Erref:** LEK-030/011
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:14. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Domeketan herriko banda egoten zen plazan eta gerraostean gramola; gerora, berriro bueltatu zen banda. Baltseoan egiten zuten neskekin. Neska gazteen egunean, abenduaren 8an, puruak oparitzen zizkieten mutilei neskek; jai handia egiten zen egun horretan.

10. Gazterik itsasora

- **Erref:** LEK-030/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:25:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Zapatu askotan lan egin behar izaten zuten itsasoan. Domeka gauerako itsasora joan behar izaten zuten. Itsasora joan aurretik, 13 urterekin, "latoneria"n ibili zen beharrean. Handik bi urtetara joan zen itsasora. "Alejandrina" motor txikian hasi zen lanean. Hasieran, txapiroitan ibiltzen ziren; udaberrian, sareekin antxoatan; eta, gero, "Jesusen bihotza" baporera joan zen.

11. Txapiroitan

- **Erref:** LEK-030/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:25:29. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Txipiroitan joaten zirenekoa. Egunsentian eta arratsaldean joaten ziren. Pilar Arrindari saltzen zizkioten eta han kanpoan saltzen zituen.

12. Andrazkoak arrain-saltzaile

- **Erref:** LEK-030/015
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:29:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Motor bakoitzak dei egiteko bat zuen, ugazabaren andrea izaten zen, eta bera arduratzen zen arraina saltzeaz. Baserrietakoek erosten zituzten. Andrazkoek ere behar asko egiten zutela dio. Sorkia buru gainean zutela eramaten zuten arraina, sorki bakoitzean 50 bat kilo eramaten zituzten.

13. Zenbat gura lan

- **Erref:** LEK-030/016
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:23. **Bukatu:** 00:30:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

Herri mailan diru gehien antxoak ematen zuen, umeak ere burua kentzen joaten ziren-eta. Lehen herritar guztientzako lana zegoen: arrain-fabrikak, ontziolak...

14. "Kosteroak"

- **Erref:** LEK-030/017
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:30:38. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Sasoirik onenean 32-33 enbarkazio ezagutu zituen Luisek. "Kosteroak", kargadunak, sei-zazpi bat zeuden: Asturiasko ikatza, Aulestiko minerala, Asturiasko sagardorako sagarrak... garraiatzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Zuk zenbat motor ta zenbat bapore ezagutu zenduzan Lekiton sasoirik

onenian?

- Sasorik onenian hogeta hamabi-hogeta hamahiru enbarkaziño euazan, bete-bete eindra euan portua ta gero eoten zirian, bueno harek arrastekuak arin jun zirian, sei pareja arrastero eoten zirian, arrasteruak eoten zirian harek: Ta gero kosteruak, kosteruak eoten zirian sei-zazpi kostero hor, kosteruak eitten eben /etxeben/ biharra ba, hau kargia, kargero jeneral modura ibiltxen zirian, on bai, kosteruak zirian ehun tonelada ehun ta berrogei gehidxen eukenak eruten eben, igual apeak. Apeiak kargaten zan hamen, harako, hor Asturiaserako, miñetarako ta orduan apeiak zan gehidxena, eruten eben, ikatza handik ekarten eben hona, ta hamen Allustiko (Aulestiko) hor be hortixik be miña bat, hor be mineral pixkat ataraten zan, ha be eruten eben ta, ta sagarra kargaten zan, sagarra hamen sagar asko euanin be, sagarra Asturiaserako kargaten eben-ta.

- A bai? Sagardoentzako?

- Bai, sagardoentzat bai, Juakin Erdozia hamen, Erdozia, honen aittittak, erosten eban sagarra hamen hango, Karrantzako morro bateaz etten eban horko Burgosen partetik zetorren e, Karrantzako sagar guztik batzen eben zakutan ta horrek baba-zako handidxetan, larogei killoko zakua, holakoxia beteta eruten ebezen, zakuak, horretxek hirorogeta hamar larogei holako barkuak beteta juten zirian. Kubiarta gane guztia, hara Asturiasera ta Kijon edo Avilés-edo. Han problemia, Euskal Herridixan asko euanin sagarra han gitxi esaten dabe, ta han zanin asko ba hamen gutxi, porke Euskal Herridixak sagar asko euki dau, ontxe galduta, hamengo sagar guztik usteldu ein zirian, jaon barik ondo, ta dana sagastidxa, hamen euan dana sagastidxa, lehen [...] ezer be, horixe galdu gendun sagardauak eta danak.

15. Arrantzarako aparejuak

- **Erref:** LEK-030/019
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:37:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Aparejuak: bisigutarako korda egiten zen, tretza bakoitzak 130-140 bat amu zituenek guztira 300 amu inguru erabiltzen ziren. Papardotarako, apareju lodiagoa erabiltzen zen; txitxarrotarakoari "melenia" deitzen diote, amu gehiago zituen eta lodiago zen; antxoatarako traina erabiltzen zuten, sarea; atunetarako kaza, kaza zelakoa den azaltzen du. Kazari artoaren maluta jartzen zitzaion puntan; antxoa txikiari gatza ematen zitzaion eta horixe erabiltzen zuten bisiguaren karnatarako.

16. Bisigutan: korda, kalak, tuntuxak

- **Erref:** LEK-030/020
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:37:49. **Bukatu:** 00:42:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Bisigutarako inguruko kalak aipatzen ditu. Eskoteko kalan askotan batzen ziren Getariako eta Mutrikuko arrantzaleekin. Bisigutan kordarekin egin behar zen, eta ondarroatarrek ez ziren abilak horretan. Tuntuxen erabilera.

17. Beste arrantzaleekin hartu-emana

- **Erref:** LEK-030/021
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:42:15. **Bukatu:** 00:44:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Gipuzkoako eta Bermeoko arrantzaleekin ondo konpontzen ziren. Ondarroako arrantzalea beti laguntzeko prest egoten da. Kantabriakoak azken urteetan hasi dira arrantzan, lehen nahiko txiroa zen.</p>

Transkripzioa

- Ta zelako hartu-emona eukitten zenduen giputxekaz ta kantabroakaz ta?
 - Giputxakin-ta bai.
 - Ona?
 - Bai, giputxakin ta, bueno [...] Lekitton ondo, danakin eon gara gu ondo.
 - Bermiotarrakaz?
 - Bermiotarrakin be bai, ondarrutarrakin pixkat e, baiña, ondo ondo. E! On beste bat, ondarrutarra itxasuan gixon handidxa da laguna laguntzeko ta horretako, eurak holakoxe holako... ta bermiotarrak be, entzun dozu ? Ta erdidxan euki douz horrek bidxok be, geu erdidxan, ta gu bidxakin ondo.
 - Ta kantabroak?
 - Ba kantabruakin. Kantabruak ontxe arte ez diz ixan. Kantabruak on zemat esango dotsut ba? hogeta hamar urtetik edo ein dabe arrantzan. Santoña ta nik ezautu dotez, Santoña pobrezidxa, miseridxa ta Laredon ta. Beitu gaur Laredo zelan daukazun, orduan Laredon ta ez euan ezebez. Castron ta ezebe ez euan " miseria y pobreza todo es una pieza" halakoxia zan pobre, pobre, pobria. On, gaur turismua Bilboko jente moru guzti jun dok hortik zihar, hantxe dao danak: Castro, Laredo-ta. Laredon-ta, gaur [...] eskerrik asko emoten "hospital de Laredo", gure sasoian medikurik be ez euan hamen, gure denporan, gazte denporan. Santoña be herridxa pobre, pobre, pobria urik, urak be halaku gatza eukan harek. Gero, honek Carrero Blancok-eta hasi zirin, emon eutsen, ba ein ebezen gauzak-eta. Ta gero badakixu fabrikaziñoia ta bertara jun zan ta on pentsaten dau honek Revillak "joder salason de Santoña" esaten dau, "¿Salason de Santoña? ¿De donde estas hablando? Si salason no existe... seis años llevamos sin pescar e!" Ta on botian ipinitxa... horko, Marruekoeko arraiñantzako.

18. Bisigutan: zelan harrapatu, prestaketa, arbia...

- **Erref:** LEK-030/023
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:44:25. **Bukatu:** 00:48:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Kordak esaten zuen non zegoen bisigua, erraz asmatzen zen. Patroiak ere abilak zirela eta erraz asmatzen zutela dio. Bisigutan joan aurretik tertzak prestatu behar izaten ziren eta beraiek prestatu behar zituzten: sikatu, amuak egin... "Santa Katalina bisigutarako goiz da" eta "Después de enero besugo caballero" esaera zaharrek azaltzen dute zein den bisigu-denboraldia. Arbia botatzen duenean, bigundu egiten da bisigua eta arbia duenean gogor egoten da.

19. Bisigu asko harrapatzen zen

- **Erref:** LEK-030/024
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:51:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Gabonetan zein urte berri egunean ere bisigutan ibiltzen ziren. "San Anton besugo a montón". Bisiguak behar asko ematen zuen eta Lekeition arto asko batzen ziren, non gorde ere ez zuten izaten. Arratsaldeko 5ak aldean izaten zen salmenta. Bisigua zelan prestatzen duen azaltzen du. Ia egunero jaten zutela-eta ez zitzaion gustatzen bisigua jatea.

20. Antxoatan: ardora, trainak...

- **Erref:** LEK-030/025
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:51:53. **Bukatu:** 00:55:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Bisigu-denboraldiaren ostean, antxoarena dator. Ardora, zurtasuna, ikusten zen eta horrela zekiten non zegoen antxoa. Hurbil zeuden antxoa-kalak. Antxoatan irten aurretik trainak zelan prestatu behar izaten ziren azaltzen du.

21. Harri-ikatzen abestia

- **Erref:** LEK-030/026
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com